

PROIEKTUA: INMIGRANTEENTZAT ETA ETXEBAKOENTZAT "HOTELA" ETA JANTOKI SOZIALA

4) ELKARTEAK

Bakoitzak funtsezko baliabide bat jarriko du. Lehenik eta behin, Maider, administrazioaz arduratuko da. Bera arduratuko da paper guztietaz. Hau da, une horretan hotelean zenbat pertsona dauden, lana lortu eta alde egiten dutenen pertsonen kontrola eta gai ekonomiko guztiak kontrolatuko ditu.

Bigarrenaz, Eider, garbitzailea izango da. Eider arduratuko da zehazki hotela eta jantoki soziala garbitzeaz. Hau da, sukaldea, korridoreak eta logelak garbitzeaz arduratuko da.

Jarraituz, Lucia, umeen denpora-pasataz arduratuko da. Izan ere, hartuko ditugun familia askok seme-alabak izango dituzte, eta, tamalez, ez dute izango non egon gurasoak ikasten ari diren bitartean, gizartean sartu ahal izateko. Horregatik, Lucia arduratuko da haiek entretenitzeaz eta behar duten guztia irakasteaz.

Azkenik, Irati, sukaldaria izango da. Bera arduratuko da gosaria, bazkaria, umeentzako askaria eta afaria prestatzeaz.

Bestalde, azpiegiturak kontratatuko ditugu. Alde batetik, enpresa bat kontratatuko dugu janaria eta produktuak hotelera ekartzeko, ondoren Iratik sukaldatu ahal izateko. Azkenik, boluntarioak bilatuko ditugu, adinez nagusiak direnei lanbideren bat irakasteko eta haiek gizartean sartzeko aukera izateko.

